Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Koldo Alberdi Larrañaga Egileor II

Bergara, Gipuzkoa (1960)



Aurkibidea

Biografia



Osintxu auzoan jaioa, 5 urte zituenean Bergarako herrigunera joan ziren bizitzera. Guraso biak Elosukoak zituen, ama Narbaiza baserrikoa eta aita Egileor baserrikoa: Jesus Alberdi "Egileor" bertsolaria. Herri eskolan ikasi zuen 15 urtera arte eta gero Bergarako Elementalean. Aitaren pausoei jarraituz, Koldo ere bertsolaria da: 1980ean kantatu zuen lehen aldiz jendaurrean eta 1988rarte ibili zen plazetan. Bergarako bertso eskolaren sorreran ere hartu zuen parte, Pello Txintxurreta eta Aitor Aginagalderekin batera. Elkarrizketan Jose Luis Gorrotxategi bertsolaria zegoen.

Zintak

BER-345

- **Proiektua**: Euskararen historia soziala Bergaran
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Data**: 2021-03-01
- **Iraupena**: 83 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Osintxuko Kurutza etxean jaioa

- **Erref**: BER-345/002
- **Iraupena**: 0:03:06. **Hasi**: 00:00:18. **Bukatu**: 00:03:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Gurasoak biak Elosu auzokoak zituen, aita Egileor baserrikoa eta ama Narbaizagainekoa baserrikoa. Aita Jesus `Egileor´ bertsolari ezaguna. Jesus Soraluzen lanean hasi zenean, osabarenean bizi izan zen Osintxun. Gero auzoko Kurutza etxera ezkondu ziren eta bertan jaio zen Koldo. Bost urte zituela, Bergarara joan ziren bizitzera. Osintxuko oroitzapenak gogoan ditu: etxe ondoko erreka, kotxerik ez...

2. `Egileor´en hasiera bertsotan Elosuko Bentan, lagunartean

- **Erref**: BER-345/003
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:03:24. **Bukatu**: 00:05:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Aita Elosu auzoan hasiko zen bertsotan, lagunartean. Benta baserrian taberna zegoen eta han elkartzen ziren auzoko gazteak. Auzoan baziren bertsotan egiten zuten beste batzuk ere eta tabernan jardungo zuten bertsotan ziurrenik. Aitaren anaia Martin ere bertsolaria zen.

3. Garai batean etxean eta lagunartean bertsotarako joera

- **Erref**: BER-345/004
- **Iraupena**: 0:02:24. **Hasi**: 00:05:07. **Bukatu**: 00:07:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Aitari etxetik ere bazetorkion bertsotarako zaletasuna, Osintxun bizi zen osabarengandik. Etxe giroan eta lagunartean bertsotarako joera handiagoa zegoen lehen. Ez zen hain erraza izaten bertso zaharrak eskuratzea eta gaur egun baino interes handiagoa izaten zuen lagunartean bertso zaharrak kantatzeak.

4. `Egileor´ek etxean zituen bertso-liburuak

- **Erref**: BER-345/005
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:07:31. **Bukatu**: 00:09:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Aitak etxean zeuzkan bertso-liburuak: Pedro Mari Otañorena, Uztapiderenak... Uztapideren "Lehengo egunak gogoan" gastatuta zeukan, eskuartean asko erabili zuelako. Herriz herri gertatutako pasadizoak irakurtzea gustatzen zitzaion.

5. 1975ean `Basarri´ eta `Uztapide´ren omenez Bergaran egindako jaialdia

- **Erref**: BER-345/007

- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:09:20. **Bukatu**: 00:12:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Gaztetan aitaren bertso saioak ikusten zituen eta baita herriko bestelako saioak ere: Elosun, Osintxun, Bergarako Erramu zapatukoa... Gogoan du 1975ean `Basarri´ eta `Uztapide´ren omenez egin zen jaialdia, pilotalekua bete-beteta zegoen eta. Bera gaztea zen eta harrituta geratu zen. Jaialdian Mattinek eta Xalbadorrek parte hartu zuten eta Bergaran geratu ziren lotan (bietako bat euren etxean), biharamunean beste bertso-saioren bat zutelako inguruan.

6. `Egileor´ Osintxun Gorrotxategirekin; Elosun auzotarrekin

- **Erref**: BER-345/008
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:12:25. **Bukatu**: 00:13:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Osintxun Jose Luis Gorrotxategirekin kantatzen zuen normalean `Egileor´ek. Elosun `Lazkao Txiki´rekin, adibidez. Kanpotik ez bazen bertsolaririk ekartzen, auzokoen artean konpontzen ziren.

7. 1980 ingurura arte bertsozaletasun handirik ez Bergaran

- **Erref**: BER-345/009
- **Iraupena**: 0:02:14. **Hasi**: 00:13:57. **Bukatu**: 00:16:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
1980ra arte Bergaran ez zegoela bertsozaletasunik dio. Udalak Erramu zapatu egunean antolatzen zuen jaialdia bakarrik zegoen. Auzoetan (San Kristobal, Ubera, Basalgo, Osintxu, Elosu, Angiozar...) egiten ziren bertso-saioak jaietan, auzokoek antolatuta. 1980tik aurrera hasi zen indartzen bertsozaletasuna: Jardun elkartearen sorrera, bertso-eskola...

8. Auzoetan meza osteko bertso-saioak

- **Erref**: BER-345/010
- **Iraupena**: 0:02:27. **Hasi**: 00:16:11. **Bukatu**: 00:18:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Auzoetako jaietan zer eratako bertso-saioak egoten ziren: igandeetakoak, afarietakoak... Baina meza osteko saioak izaten ziren ohikoenak. Entzuleak mezatik irtendakoak edo eguerdian jai-girora gerturatutakoak. Kanpoan egiten ziren normalean saio horiek. Altos Hornos-eko adibidea jartzen du.

9. Garai bateko jaietan jende gehiagoren partaidetza

- **Erref**: BER-345/011
- **Iraupena**: 0:03:19. **Hasi**: 00:18:38. **Bukatu**: 00:21:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:
Garai bateko jaietan jendearen partaidetza askoz handiagoa izaten zen. Adibiderako, 1975-1980 inguruan Osintxuko jaietan izugarrizko jende pila batzen zela dio. Jaien antolakuntzan ere lan handia egiten zen eta jende gehiago erakartzen zuten jaiek. Dantzarako ere joera handiagoa zegoen. Egan taldea zegoen orduan modan.

Transkripzioa
- Jaixak eta... jaiak kristonak izaten ziela esan zostazun aurrekuan.
- Bai.
- Ez? Jai haundixak, ilusiño haundixakin eta parte-hartze haundixakin.
- Bai, ez dakit... Bai, hori da. Ez dakit geu zahartzen goiazelako edo zegaittik, baiña, baiña, bai, bai, orduan jaixetako...orduan jaixak, egixa esan partaidetza, jendian partzaidetza askoz´e handixaua izaten zan jai... jaixetan, orokorrian –nik uste dot–, bai bezperako zeretan eta... bai, jai guztietan. Jendian partaidetza askoz´e handixaua izaten zan. Bai. Ez dakit, igual, igual neure... neure perzepziñua da, e? igual neu urtietan aurrera noielako, baiña... Baiña, ez dakit, nik orduan behintzat ikusten nittuena da nola... bai, bai... igual referentzia bezela hoixe, ba, Osintxuko jai batzuk. Osintxuko jai batzuk, 1975-80 tarte horretan, biltzen zan jende pila bat Osintxun, baiña baiña baiña billurgarrittekua! Nik eeee... orduen asko, jende ikaragarri eruaten zittuen jaixek. Bai. Bai Osintxu, bai Ubera, bai... Altos Hornos batek eta. Orduen asko, jende pilia mobitzen zan, bai, bai. Ez ez dakit, ba..
- Igual auzuak berak be personalidade gehixau orduan? bueno, zea gehixau, igual lana…?
- Bai antolakuntza... bai, antolakuntza aldetik lan haundixa egitten zan, dudarik ez. Bai, jendia... Bai, ba, nik ez dakit, ba, adibidez, berbena bat antolatzerakuan. Berbena bat antolatzen zan... nik ez dakit, orduan Eganak zan, Egan zian, ba, zerak... modako taldia. Ta Eganak jartzen zienian, bueno...! betetzen zian auzuak, ba, jo-ta, puntaik punta. Eta, karo, horrek antolaketa lanetan ere, ba, lan haundixa, aurretiko lan haundixa suposatzen zuen. Eta bai. Eta... hori da, inplizidade aldetik´e bai. Jendea, auzoko jende aldetik ere, inplizidade aldetik, ba, normala dan bezela, bai.

- Orduan igual dantza zaltasuna be haundixaua, ez? Erromerixa giro hori gustatzen jakon jendia edo... Hori poliki-poliki igual juan da kanbixatzen, ez?
- Bai, bai, ez dakit. Dantzia... bai, hori da, bai, seguruenik baitta. Danetik. Hori da, dantzarako joera gehixau be bai ta... Eta... bai. Karo, ez dakit. Gaur egunian be badao, ez, dantzarako zaletasuna, baiña ez dakit. Nik uste dot orduan behintzat jaixetarako-eta zer... bai, jende gahixao erakurtzen zuen jaixak, bai. Inguruetako jendia.

10. Eskola nazionalean gaztelaniaz

- **Erref**: BER-345/012
- **Iraupena**: 0:02:53. **Hasi**: 00:21:57. **Bukatu**: 00:24:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Eskola nazionalean ikasi zuen 15 urte ingurura arte eta gero Elementalean. Eskola nazionalean gaztelaniaz ikasten zuten, irakasleak kanpotik bidaltzen baitzituzten, hain zuzen ere, horretarakoxe. Gogoan du euskaldunak begitan hartzen zituen maisu bat. Elementalean egoera hobetu zen, maisuak bertakoak ziren eta.

11. UNEDen euskaraz alfabetatzen

- **Erref**: BER-345/013
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 00:24:50. **Bukatu**: 00:27:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:
Gaztelaniaz ikasi arren, gerora euskaraz alfabetatu zen UNEDen. 1979 inguruan EGA atera zuen eta gerora Sakontze Mailan ere hasi zen. Juan Martin Elexpuru eta Jerardo Elortza ziren irakasleak, besteak beste.

12. Lagunartean bertso-girorik ez eta zuzenean txapelketara

- **Erref**: BER-345/015
- **Iraupena**: 0:05:26. **Hasi**: 00:27:20. **Bukatu**: 00:32:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Bertsotan etxean jarduten zuen pixka bat, baina lagunartean ez, ez zegoen bertsotarako girorik eta. 18 urterekin Zaldibiko "Artxanberri eta Patxi Errota" sariketan parte hartu zuen, asko prestatu gabe. Andoni Egaña eta beste

bertsolari ezagun batzuk handik pasatakoak dira. Hurrengo urtean Gabiriko Osinalde txapelketan parte hartu zuen. Hango parte-hartzaileak. Garai hartan hasi zen ALMENgo bertso-eskola eta joaten zen tarteka. Urruñako Errexil saria.

13. Euskal Udalekuetan ALMENgo bertso-eskolakoekin bertsotan

- **Erref**: BER-345/016
- **Iraupena**: 0:02:32. **Hasi**: 00:32:46. **Bukatu**: 00:35:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

Laburpena:
Berarekin batera plazetan ibiltzen ziren bertsolariak, ALMENgo eskolakoak eta ingurukoak izaten ziren: Sarasua anaiak, Felix Iñurrategi, Arantzazu Loidi, Antzuolako `Kaxeta´... Euskal Udalekuetan (hasieran Beiren eta gero Goñin) ALMENgo bertso-eskolakoekin topo egin zuen eta bertsotan jarduten zuten.

14. San Kristobal auzoko bertso-saioetan giro ona

- **Erref**: BER-345/017
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:35:18. **Bukatu**: 00:36:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
San Kristobal auzoko jaietan abesten zuten urtero ALMENgo bertso-eskolako kideek, Arantzazu Loidik, Aitor Sarasuak eta berak, normalean. Oso giro ona egoten zen.

15. 1983-1985 bitartean bertso-eskola Aranzadi ikastolan

- **Erref**: BER-345/019
- **Iraupena**: 0:04:28. **Hasi**: 00:36:48. **Bukatu**: 00:41:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
1983an, Aranzadi ikastolak eskatuta, bertso-eskola jarri zuten martxan Pello Txintxurretak, Aitor Aginagaldek eta berak. Hasieran ikastolari zuzenduta egon arren, herri mailara zabaldu zen. Helduen talde bat ere izan zuten. 1985 arte jardun zuten. Pello Txintxurreta ez zen bat-bateko bertsolaria, baina bertso idatzietan oso ondo moldatzen zen. Aitor Aginagalde ALMENgo bertso-eskolan ibiltzen zen eta bertsozale amorratua izan da beti.

16. Bertso-paperak zabaltzen zituzten herrian

- **Erref**: BER-345/020
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:41:16. **Bukatu**: 00:43:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Lanean errelebotan hasi zenean, zaildu egin zitzaion bertso-eskolarekiko lotura eta utzi egin zuen. Handik gutxira Pellok eta Aitorrek ere utzi egin zuten. Bost urtean ondo funtzionatu zuen eskolak. Helduen taldea izan zutenean, astero bertso-paperak jarri eta herrian zabaltzen zituzten.

17. Bertso-eskolako gaztetxoekin txapelketetara

- **Erref**: BER-345/022
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 00:43:34. **Bukatu**: 00:44:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Beraiek bertso-eskolan ibili ziren sasoian Mikel Mendizabal zen bertso-eskolen koordinatzailea Gipuzkoan eta haren bitartez bertso-eskolako ume eta gazteekin txapelketetara joaten ziren. Giro polita sortzen zen, inguruko jendea ezagutzen zutelako.

18. Beraiek laga eta urte batzuetara bertso-eskola berria

- **Erref**: BER-345/023
- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 00:44:38. **Bukatu**: 00:45:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Beraiek bertso-eskola laga eta 2-3 urtera eskola berria jarri zuten martxan, Jardun Elkartearen laguntzarekin. Ordutik berak ez zuen harreman handirik izan bertso-eskolarekin, lan kontuengatik astirik ez zuelako izaten. Bertso-eskolak ondo funtzionatzen duela iruditzen zaio.

19. Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa antolatzen

- **Erref**: BER-345/025
- **Iraupena**: 0:01:49. **Hasi**: 00:46:00. **Bukatu**: 00:47:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Eskualdeko zenbait kide Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen bileretara joaten ziren. Arrakasta handia izan zuen Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa (1991koa?) antolatzen jardun zuten. Handik atzera bertsolaritza alde batera utzi zuen, bere bizitzan zentratzeko.

20. Elosuko auzotarren arteko txapelketa irabazi zuen

- **Erref**: BER-345/027
- **Iraupena**: 0:02:18. **Hasi**: 00:48:30. **Bukatu**: 00:50:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
1980an auzotarren arteko bertso txapelketa antolatu zen Elosun. Zortzi partaide izan ziren, lau jada plazaratutakoak (Jesus eta Martin `Egileor´, Gregorio `Kantera´ eta Andres Gabilondo) eta beste lau plazaratu gabeak (tartean, Manu `Bega´ eta bera). Epaileak Gorrotxategi eta Laxaro Azkune izan ziren eta berari jantzi zioten txapela.

21. Bertsolaritzan mugarri: 1980ko Bertsolari Txapelketa

- **Erref**: BER-345/030
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:51:08. **Bukatu**: 00:54:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
1970 inguruan hasi zen aldaketa bertsolaritzan. Amurizak ekarri zuen aldaketa: bertso landuagoak, bai egitura aldetik eta baita hiztegi aldetik ere. Doinuak eta errimak ere aberatsagoak. Mugarri bat jartzekotan, 1980ko txapelketa jarriko luke. Franco-ren heriotzaren eta ikastolen sorreraren eragina.

22. Garai bateko bertsozaleak auzo-girokoak

- **Erref**: BER-345/031
- **Iraupena**: 0:01:07. **Hasi**: 00:54:18. **Bukatu**: 00:55:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Bera umea zenean bertsolaritza auzo-girokoa zen, herri kaskokoa baino gehiago, eta esan liteke bertsozaleak baserrikoak zirela. Baserria izan zen euskarari gehien eutsi ziona ere.

23. Bergarako bertsozaleak: Bittor `Satorretxe´ eta Felix Beitia

- **Erref**: BER-345/032
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:55:25. **Bukatu**: 00:56:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Bergarako bertsozaleak: urte askoan jai-batzordeko kide izan ziren Bittor `Satorretxe´ eta Felix Beitia. Garai batean telefonorik ez eta bertsolariei abisatzeko, eurengana joan behar.

24. Abeslarien eta bertsolaritzaren arteko harremana

- **Erref**: BER-345/033
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:56:55. **Bukatu**: 00:59:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Bertsolariek eta abeslariek orokorrean beti izan dutela harremana uste du. Gogoan du Leintz eskualdean egiten ziren txapelketetara Xabier Lete joaten zela entzule gisa. Beraiek ez zuten izan harreman zuzenik herriko musikariekin bertso-eskolan ibili ziren sasoian.

25. `Uztapide´ zen `Egileor´en eredu; azken urteetako plazak

- **Erref**: BER-345/035
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:59:50. **Bukatu**: 01:01:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Aita, Jesus `Egileor´, lehengo ereduko bertsolaria zen, berezkoa zuena. `Uztapide´ zen haren eredu. Sasoirik onenetan leku askotara joango zen `Egileor´, baina Bergara inguruetan ibiliko zen gehien. Azken urteetan Eibarko Arrate inguruan eta Matximentan, Santa Ageda eskean, ibili zen gehien.

26. Asteburuetan aita falta, bertsotara joaten zelako

- **Erref**: BER-345/036
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 01:01:38. **Bukatu**: 01:02:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Bera mutikoa zenean, aita gutxi egoten zen etxean, astebururo bertsotara joaten zelako. Gainera, garai hartan bertsolariak egun osorako joaten ziren bertsotara. Santa Ageda eskean joaten zirenean, berriz, goizean hasi eta hurrengo goizera arte.

27. Bertsolarien fama txarra, aspaldikoa

- **Erref**: BER-345/037
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 01:02:52. **Bukatu**: 01:04:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Garai batean bertsolariek alfer eta mozkor fama zuten. Koldok uste dut horiek bere aitaren sasoia baino lehenagoko kontuak direla. Batzuek ez zuten nahiko etxean bertsolaririk egotea, bertsolariak kanpoan ibiltzen zirelako eta garai hartan etxean lanerako jendea behar zelako.

28. Eredu izan dituen bertsolariak

- **Erref**: BER-345/038
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 01:04:25. **Bukatu**: 01:05:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Aitaren idoloa `Uztapide´ zen. Berari Lazkano, Amuriza, Lizaso, Agirre... gustatzen zitzaizkion. Eragin gehien Amurizak, bertsolaritzari egin zion ekarpenagatik. Bat-batekoan Joxe Agirre sekulakoa zen.

29. Garai bateko bertsokera eta oraingoa

- **Erref**: BER-345/040
- **Iraupena**: 0:03:04. **Hasi**: 01:06:12. **Bukatu**: 01:09:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Bertsozale Elkartea sortu zenetik bertsolaritza egituratu egin zen: bertso-saioen antolaketa, bertsoak aztertu, etab. Lehengo bertsokera eta gaur egungoa, oso ezberdinak. Garai batean 3-4 doinu erabiltzen ziren eta gaur egun ehunka. Errima eta eduki aldetik gaur egun askoz bertso landuagoak. Kantaerari dagokionez, lehen garrantzi handiagoa ematen zitzaion.

30. Euskara eta bertsolaritza gizartera egokitzen joan dira

- **Erref**: BER-345/043
- **Iraupena**: 0:03:14. **Hasi**: 01:10:34. **Bukatu**: 01:13:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Euskara zer den berarentzat: komunikazio-bide naturala. Euskara mantendu beharreko dela dio, bere antzinatasun eta berezitasunagatik. Gaur egungo gizartera egokitzen jakin du euskarak; horren adibide da bertsolaritza. Euskara baturako jauzia ez zen erraza izan, baina bai beharrezkoa.

31. Xamatz dantza-taldean ibili zen pare bat urtez

- **Erref**: BER-345/045
- **Iraupena**: 0:04:30. **Hasi**: 01:14:36. **Bukatu**: 01:19:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:
Xamatz dantza-taldean ibili zen pare bat urtez, mutilak falta zirela eta. Tarteka Edu Muruamendiaraz joaten zitzaien zer urrats hobetu behar zuten esatera, baina bestela euren kasa jarduten zuten. Seminarioan elkartzen ziren entseatzeko. Era guztietako euskal dantzak egiten zituzten. Herri mailan dantza egiten zuten. Amaia Madinabeitia izaten zen taldearen gidaria.

Transkripzioa
- Bestela zuk euki dozu harremanik beste talden batekin? Edo, ez dakit, ba, dantza taldiakin, antzerki taldiakin, edo hemen Bergarako...?
- Bai!
- Ibili zara beste saltsa batzutan?
- Bai, bai, dantza taldian egin nittuen pare bat urte-edo, Xamatz dantza taldian. Bai, orduan... bueno, oin dala hogeita hamar urteko kontuak dia, e? gehixau, gehixau, hogeita hamabost bat urte-edo bai. Bai. Bai, ba, zer... bueno, jendia falta eitten zebala dantzan itteko ta mutilak, neskak bazerela baiña mutilak falta itten zebela ta ala! benga ba! Ta, bueno, orduan, orduan, erraz apuntau´re eitten giñan edozein tokittara ta. Bai, egin giñutzen holako salto batzuk tartian behin. Bueno, [...]. Ondo etortzen jakun, gaiñera, pixka bat, bai.
- Eta hor, talde hortan, zein zan irakaslia-edo? Hau, `Surra´?
- Ez, ez, talde bezela funtzionatzen giñuen. Tartian behin ekartzen giñuen, eeee... bueno, pixka bat zerak hobetzeko-eta, Edu, Edu Murua tartian behin etortzen jakun, zerak-eta pixkat pausuak-eta berak zuzentzen zizkigun, eta "ez, holan, hau holan in bihar dozue /biozue/ eta...". Baiña etortzen zan, ba, ez dakit, igual pare bat hillian behin-edo etortzen zan ta esaten zoskun: "Ez, hau mejoratzen jun bihar dozue, hau ein bihar dozue / biozue/, ta hola" ta, bueno, gero ya gu juten giñan ba.. Ez, baiña, talde bezela. Elkartzen giñen taldia eta –astian behin-edo elkartuko giñan

seguruenik– eta, bueno, hor, hor ibiltzen giñan zerian, Seminarixoko oholei hautsak kentzen, jo-ta saltoka. Bai, hor.
- Ze dantza edo...? zer...? pixkat danetik ala...?
- Euskal, euskal dantzak. Bai, danetik, bai. Euskal dantza orokorrian, bai.
- Neska-mutilak ziñaten ala...?
- Bai, bai, bai, talde mistua. Eta mutilak falta izeten zian orduan be eta, bueno, ba, mutilak falta izeten zian eta gu ez abillak giñalako, e? baiña, bueno, ba... ba bultua, bultua eitten giñuen eta hor jarduten giñan, bai, bai.
- Eta nora juten ziñaten gero dantza egittera? Hemen, herrixan bertan?
- Ez, herrixan, gehixenbat, bai, herrixan. Ez dot uste... kanpora erteera bakarren bat igual ingo giñuen norabaitt, baiña ez, gehixen auzo... auzoko... auzuan eta. Eta gero, ba, herrixan gehixenbat. Ez giñan gehixegi zabaldu. Bai.
- Zenbat ziñaten taldian gutxi gorabehera?
- Jo, jo, oin dala hogeita hamabost urteko kontuak dia, e! Baiña nik uste dot izango giñela hamabost-hamasei bat lagun-edo izango giñan. Bai. Gehixau. Gehixau igual, e! Bai, bai, hamabost-hamasei bat orduan, bai, bai, neska ta mutil danea holako talde... talde politta zan.
- Hiztuna2: Eta hogei´re bai igual, ni Xamatz taldia ikusitta natxiok eta.
- Baleikek, baleikek, bai.
- Hiztuna2: [...].
- Baleikek, bai.
- Eta organizatzen-edo batenbat egongo zan pixkat taldiai... nahiz eta talde lana izen, batenbat beti egoten da gidatzen dabena edo...?
- Bai, ba, bueno, Madina, Madinabeitia, Madinabeitia Ramonen alabia ibiltzen zuan, Estepanen andria. Eta, bueno, Madina eta, bai, holako... nik uste dot, ez dakit bestela hola... ba taldian. Beti... Iñoiz ba abisua pasatzen zoskuen "Hi! Ba zerian parte hartu bihar dozue /biozue/, ba... San Martzialen", bueno, ba San Martzialgo sokia egin ta, bueno, ba San Martzialera. Ala ba! Bueno, baiña, ez, gehixen... ez zan... bueno beti egongo zan bakarren bat... Igual Amaia, Amaia Madinabeitia izango zan gehixenbat, ba, berez betidanik dantza... dantziakin, dantza inguruan-eta mobidu dalako eta, ba, eurengana joko zuen jendiak. Baiña, ez, bestela, talde bezela funtzionatzen giñuen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-16

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com